PRENTSA OHARRA: 2020.07.01

# 72 film labur izango dira hautagai Kimuak 2020 aukeraketarako

**Pasa den asteartean, ekainaren 30a, itxi zen Kimuak programaren 2020ko ediziora film laburrak aurkezteko epea. 72 izan dira izena eman duten lanak.**

Aurkeztutako filmak aztertu eta epaitzeko, zinema eta ikus-entzunezkoen munduko bost profesional eta adituez osatutako hautespen batzorde independente bat eratu da. Honako kideek osatzen dute:

- Michèle Driguez: Montpellierreko (Frantzia) CINEMED – Mediterraneoko Zinema Jaialdiko film laburren saileko arduraduna.
- Alfonso López: Donostia Kulturako Zine Unitateko teknikaria eta Bang Bang Zinemako kidea.
- Dora Martí: Valentziako IVAC Kultura Institutuko ikus-entzunezko sustapeneko eta Curts Comunitat Valenciana film labur katalogoko arduraduna.
- José Luis Rebordinos: Donostia Zinemaldiko zuzendaria.
- Nekane E. Zubiaur Gorozika: Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) irakaslea eta ikertzailea.

Astelehena, uztailaren 13an emango da jakitera Kimuaken 23. katalogoa osatuko duen aukeraketa.

**Info+**

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

**www.etxepare.eus**